

Izen-deiturak:..... Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

zirimolaka	«Zigarroaren kea, zirimolaka , billar-mahaiaren gaineko argiaren inguruan.»
mahuka	«Labanaren alde biak berriro garbitu zituen, oraingoan jertsearen mahukaren kontra.»
adeitsu	«Inoiz joaten nintzen haren lantegitxora etxekoren baten oinetako-zoruak errepara zitzan. Adeitsu hartu ninduten beti.»
buztan-ziri egin	«Gymnasium-ean irakasten ziguten literatur prezeptibari buztan-ziri egin , eta idazten hasi nintzen...»
zozabar	«Aise ateratzen zitzaizkidan hitzak, eta letrek zozabar saldo nekaezinak ematen zuten paper zuriaren gainean...»
belaxka	«... zaildu, landu, zigortu, bihotza gogortu, sentiberatasun belaxkari biderik ez eman.»
egonarri	«Lehen erasoaldiari ondo erantzun eta gero, irabaz nezakeela pentsatu nuen, Zezenko egonarri gutxikoa baitzen.»
lekaio	«Ordutik, Zezenkori irabazi izanaren fama irabazi nuen nik, lekaiorik leialena Hermannek.»
kitzikatu	«... liburua zabaltzen nuen edozein orrialdetan eta beti topatzen nuen kitzikatzen edo adoretzen edo hausnarrean jartzen ninduen zerbait.»
beratz	«Beruna baino beratzago ibili zinetelako galdu zenuten gerra...»
purrustada	«Gehiegi erreparatzen badiak amaren erreguei eta aitaren purrustadei , galdutzat jo dezakek hire tokia...»
suhartasun	«Kontatzen ari naizen eltzeko domeka hartan ere aitak ohiko argibideak eman zizkigun ohiko suhartasunarekin .»
burrundara	«Autoaren burrundara estali zenean, piano-jolea pieza bukatzen ari zen...»
kabala	« Kabalok adierazten dutenaren antzeko malenkonia batez egin nuen zinerainoko bidea.»
larderia	«Ezagutu nuenetik, beti saiatzten nintzen disimulatzen haren itxurak eragiten zidan larderia .»
diosal	«Heil Hitler!, Klausek, irribarrez, eta biok eskua jaso genuen diosal gisa.»
mukuru	«Aretoa mukuru zegoen. Gehien-gehienok gazteak ginen.»
jaiera	«Zutik jarri eta besoa altxaturik, himnoa kantatu genuen jaiera osoz.»
aberkoi	«Kantua bukatu zenean, ohiko oihu aberkoiak bota genituen.»
durduzadura	« Durduzadura nabari zen batzuen aurpegietan, ez zuten imajinatu ere egingo beren erreakzio izutuek adoretu egiten gintuztela gu.»

Izen-deiturak:..... Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

orkoi	«Zapatariaren irudia etorri zitzaidan, orkoiaren aurrean jarrita, betaurreko labur estuekin, iltzetxoak ezpain artean zituela...»
barre karkailaka	« Barre karkailaka aupatzen genituen txisteok, ez onak edo gatzdunak zirelako, juduen bizkar ari ginelako baizik.»
haztamuka	« Haztamuka hasi nintzen argiaren bila, baina musika-salako argia piztuta zegoela ikusi nuen.»
doi	«Horixe da, pentsatzen nuen nik, aitak Alemaniari egin dion ekarri guztia, laurogeita hemezortzi egun; hiruhileko bat doi .»
ahotan hartu	«Kontu hura ahotan hartu izanaren damu zen, bizpahiru esaldi lauso atera nizkion...»
lauso	«Kontu hura ahotan hartu izanaren damu zen, bizpahiru esaldi lauso atera nizkion...»
behazun	«... erreakzio bortitzak eta behazuna lekuz kanpo zeuden haren portaeran...»
arrangura	«Nik uste dut bizitzak ekarri zion arrangura isilarazteko zela hain aktiboa...»
abaildura	«Amona etxera etorri zen bisitan —amak deitu zion, ni abailduratik ateratzen lagun ziezaion—...»
aldra	«... egun batez, soldadu- aldra txikiek tarteka etsaien frontean egiten zituzten eraso-erretira laburretako batean...»
begizta	«Pailazo tristeetan tristeena, alkandoraren lepokoan beti zeraman begizta estutzen eta estutzen.»
anpolai	«... aurpegi berez zuri hartan, papoek anpolaiak ematen zuten.»
zer gerta ere	«Ez gintuen, hala ere, zigortzen. Ez gogo faltagatik. Zer gerta ere . Beldurra zigun.»
pirrinta	«... gelako leihoek gutxi egin zezaketen hotzaren aurrean, zirrikitu guztietatik sartzen baitziren haizearen pirrintak .»
sator-lan	«...jendea komunisten eta juduen kontra jartzeko burutzen zituztela naziak sator-lan haiek.»
erresumin	«Nik gorroto nuen poz hura, satorra hil izana eta nazien aurkako erresumina lotzen baintuen.»
odol txartu	«...odola berotu zitzaidan bat-batean, eta halaxe egin nuen, odol txarturik , auskalo zenbat denbora.»
bris-bris	«Bizi-bizi irakurri zuen, begiak bris-bris jarri zitzaizkion.»
arbuiatu	«Elsbethek arbuiatu egingo ninduela, sentimendu hori ari zitzaidan gailentzen.»
antzarak ferratzera bidali	«Eta antzarak ferratzera bidaltzen bahau?, kezka gizontzen ari zitzaidan buruan.»

Izen-deiturak:..... Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

erdeinu	«Zure lagun horrek ez daki jendea normal tratatzen, erdeinua , ez du besterik buruan.»
herra	«Hitlerri dion itsumen horrek, juduen kontrako herra horrek... Zer dakar onik?.»
jabaldu	«Musuzapi zuri bat atera eta ahora eraman zuen eztulaldia jabaltzeko .»
moxal	«Hiritik ordubetera oinez, zeppelinak pausatu zen toki berean, zalditegi bat zegoen hainbat moxal eta zaldirekin.»
morroilo	«Atea itxi genuen, morroiloaz , inork trabarik ez egiteko.»
pot egin	« Egidak pot , judu zikina, egidak pot, egidak pot, zikin horrek.»
barbuileria	«Herr Öchlerren eskolan aztertu genituen goliardoaren garaiko barbuileria haietako batean geundela ematen zuen...»
aratz	«Eta, odol aratz-aratza zebilen gure zainetan, iragana eta oraina geneuzkan alde, etorkizuna ere gurea izango zen.»
batza	«Lanabesa batzatan sartu, bete-bete egin eta zaldi-gorotza bota nion juduari burutik behera.»
murrika	«Lagunek murrika batean eta eztarriak urratzerainoko oihu eta ardailak eginez txalotu zuten nire jarduna, eta haiek ere pixa egin zioten juduari.»
ardaila	«Lagunek murrika batean eta eztarriak urratzerainoko oihu eta ardailak eginez txalotu zuten nire jarduna, eta haiek ere pixa egin zioten juduari...»
brastakoan	« Brastakoan , odola hasi zitzaion garondotik txorrotaka.»
akain	«Ez bada judua, juduen akaina , eta hori bai dela larria, ez zaizue iruditzen?»
ipi-apak	«Larunbata noiz iritsiko pasatu nuen aste osoa, ipi-apa guztiarekin planeatu nuen zer esango nion eta zer egingo genuen zinean eta zinetik irten ondoren.»
ñirñirka	«Marck, bizikleta beltz batean, guregana zetorren, ileak harro-harro haizeagatik eta begiak pozaren pozez ñirñirka .»
irrika	«Supituan bera besarkatzeko gogoak hartu zidan barrena, nire kontra estu-estu egin eta haren bularrak sentitzeko irrikak .»
bridatu	«Hala ere, arrangura bridatu eta Elsbethen hitzak ulertzeko ahalegina egin nuen.»
pipertu	«Hori besterik ez, oraintxe esan duzu egia!, pipertu zitzaidan Elsbeth, oso desatsegin.»
bolo-bolo ibili	« Bolo-bolo zebilen Alderdiko jauntxoaren baten maitale zela ere.»
maiseaketa	«...emakume ederra eta atsegina zen, maiseaketa bekaizti guztiak sinesgarri bihurtzeko horietakoa.»

Izen-deiturak:..... Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

zalutasun	« Zalutasuna eta ausardia txalotzen genizkion eta egoera zailenetan erakusten zuen patxada miresten.»
hordi	«Hermann, ordea, ez nuen inoiz neurritasuna galduta ikusi. Hori ere alde zuen: barauan eta hordian ezgutzen gintuen gu.»
kasketa	«...Hermanni halako moduz eman zion kasketak frau Gerda ezagutu behar nuela, ezen besotik heldu baitzidan eta ezkaratzeraino eraman.»
txera	«Barrenak ez zidan halakorik eskatzen, eta atzean geratu nintzen, Hermannek erakusten zizkion txera eta abegia ulertu ezinez...»
beraska	«...nire lagunaren jarduera beraska hartan ez nuen antzematen hain ondo ezagutzen nion ezpal gogorra.»
begiak arranpalo gelditu	« Begiak arranpalo gelditu nintzen harrerako arduraduna Klaus zela ikusita.»
zirriparra	«Bero-bero hitz egin zion Klaus, kontuak eskatuz eta zirriparra zakarrean.»
izurtu	«Nire izen-deiturak entzun zituenean, ezpainak izurtu zituen espero zuen erantzuna eman izan banio bezala.»
kale edo bale egin	« Kale edo bale egitekotan nengoela, Andreas bera aurreratu zitzaidan eta nire asmoez galdetu zidan.»
zolda	«Militarrak kolpe suabe batzuk eman zituen sorbaldetako zolda eskuiltzeko.»
xuxurla	«Baina, tupustean, isiltasuna entzuten hasi nintzen ozen-ozen: gurasoei arazoak eta oinazea beste deus ekarri ez zien egoera baten xuxurlak ...»
larrimin	«...egunero bizi zituzten egonezin eta larrimin ixilak, ezin zutelako jakin nolakoa izango zuten etorkizuna.»
langartsu	«Arratsalde langartsu batez, egunero izaten ziren tirorik gabeko tarte horietako batean...»
gaztigatu	«Emaztea haurdun zegoela gaztigatu zigun gutunaren erantzunean...»
grisu	«Eguraldia epeldu baino lehen hil zen gure aita, lan egiten zuen meategiko galeria bateko grisuak zapart eginda.»
zapart egin	«Eguraldia epeldu baino lehen hil zen gure aita, lan egiten zuen meategiko galeria bateko grisua zapart eginda .»
txirbil	«Amak txirbil batzuk bota zituen su-zulora.»
lantzean behin	« Lantzean behin , ni nengoen aldera begiratzen zuen.»
baldan	«Baina hirian geldituta, baldanagoa ikusten nuen nire egoera.»
erretxin	«Deabruak eramango ahal ditu madarikatu horiek!, esan zuen erretxin .»

Izen-deiturak: Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

aldaba	«Amonaren etxeko aldaba jo zuten.»
farfail	«Gonaren tolesen farfailaren atzetik joan zitzaion ama, ate nagusia itxi eta gero.»
sorgor	«Ematen zuen gurasoak ni bezain sorgor zeudela taxuzko ezer erabakitzeko.»
tupustean	«Ematen zuen tupustean sekulako nekea pilatu zitzaiola gorputz-atal guztietan.»
beita	«Hori edo antzeko amarruzko beitaren bat bota omen zuen amak okinarenean.»
arrats behera	«Bat-batean iluntzen hasi zuen, negu gordinoko arrats behera bat balitz baino azkarrago eta trinkoago.»
desenkusa	«...irribarretxoak egin zuen, baina ez indiskrezioren desenkusa eske, gaizkiulertua gozaten baizik.»
gerruntze	«Italiako emakume-jantzi luxuzko sentsualak eramaten omen zizkien Alemaniako emakume aurreiritzi gabeei; Alemaniako gerruntze luterano
sorraldi	«Gizonaren ahots sarkorrek atera ninduen sorraldi dibertigarri hartatik.»
inarrosi	«Ez ninduen harrotu, inarrosi baizik, eta atezuan jarri.»
oldoztu	«Nik hori oldoztu eta amonak saltzaileari horixe bera esatea, bat...»
irtirin	«Ni irteten naizenean seguru nago saltzaile irtirin hori nire atzetik etorriko dela, ikusiko duzu.Bo.»
lakartasun	«Edariaren garratzak eztarria erre zidan, eztul egin nuen. Grapparekin bustitako kafearen lakartasuna eztarrian.»
zimitz (tximitx)	«...ikusten ari nintzen nintzena: gizajo bat, horixe, zimitzek hartutako manta zahar latz batean bilduta.»
txalamatika	«Hartan, ahapeka zerabilen txalamatikari utzi gabe, begiratu egin zidan.»
toxa	«Agureak toxa bat eta tabakoa biltzeko papera atera zituen brusaren barneko patrikatik, esaten zuelarik...»
apasta	«Ikasi nahi duk aingirak harrapatzen? Aski dituk kanabera bat eta txiki-txiki egindako itsaski-buruen apasta on bat.»
bihurdika	«Beste bihurdika bat eman nion aurreko pentsamenduari: Ez, Kurt ez duk agertuko, alferrik ari nauk esperantza hauspotzen.»
lastaira	«Gero, kandela harturik, leihorik gabeko gela txiki batera eraman ninduen. Lastaira bat zegoen lurrean.»
trepeta	«Bainugela txikia zen eta zernahi gauzaz betea: komun baterako trepeta arruntez gainera (...) beste lanabes asko zeuden bertan.»

Izen-deiturak:..... Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

aieru	«Bezperan Kurti buruz egindako aieru berak etorri zitzaizkidan. Ezer gutxi nekien berari buruz.»
kurrixka	«Kaioen kurrixka etengabeak entzuten ziren.»
zarpiatu	«Oroitzapenotan murgilduta, puta bat irten zen horma zarpiatutako ezkaratza ilun batetik...»
mankazio	«Esnatu nintzenean, ilun zen eta askoz ere hobeto nengoen, burua arinago nuela eta gorputz-ataletako mankaziorik gabe.»
txolin	«...galdetzen dionean zertara doan Shangai bezalako hiri arriskutsu batera, Marlenek zer erantzuten dio? Kapela bat erostera! Txolina behar du!»
azpiak atera	«Eta Marlenek azpiak ateratzen dizkio uste zabaldu horri: kapela erostearen ironiaz, Brooken aurreiritzia eraisten du.»
gontz	« Gontzek kurrinka egin zuten, atea zabaldu nuen.»
bertan-goxo	«...kaskarin bertan-goxo bat ez da ihes dabilen baten kargu egiten, baina bai kaskotik egindako bat.»
pagotxa	«Ematen zuen sekulakoa zela nire erantzukizuna, sekulakoa negoziua, sekulakoa egiteko hark ekarriko zidan pagotxa .»
erbi-lo	«Hitzordura garaiz iritsi beharraren urduritasunez egindako erbi-loa! Zakur-ipurdiko ametsak!»
gogoaz heste egin	« Gogoaz heste eginik , pala eta zaku bat hartu eta oholesi barruan sartu nintzen.»
endaitz	«Ikazkina zegoen atean, orga baten endaitzak esku banatan hartuta eta haserre.»
tedesko	«Ikas ezak, ikas ezak, tedesko urde-lerde zakil horrek, dena badakizuela uste duzue-eta!»
kofadura	«...liburu-metak bazter guztietan: apaletan, lurrean, leihoetako kofaduretan ...»
zarabanda	«Ez nuen ezer ikusi beharrik, ondo asko imajina nezakeen zer nolako zapart eta zarabandekin ariko zen laguntzen bere jardun baba-fartsa.»
bekoz beko	«Angelo bekoz beko neukan, zutik, niri begira.»
mirrin	«...nor nintzen ez baleki bezala jokatu zuenetik, pertsona mirrin ezkailua iruditu zitzaidan...»
ezkailu	«...nor nintzen ez baleki bezala jokatu zuenetik, pertsona mirrin ezkailu iruditu zitzaidan...»
zinkurin	«Angeloren ondotik pasatzerakoan, zinkurinen bat egin zuela iruditu zitzaidan, baina ez nion begiratu ere egin.»
ahokatu	«Brastakoan, Angelo leihoraino joan zen eta ixten hasi zen. Emanda egongo zen, ordea, asko kostatu baitzitzaion bi orriak ahokatzea .»

Izen-deiturak:..... Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

alibi	«Kontua duk hilketaren susmagarri bakarra nintzela, ez neukala Greta hil zuten momentuan non egon nintekeen argi zezakeen alibirik .»
zanbro	«Eta ni, berriz, zuloan, zanbro gaiztoaren harrak bihotz janda!»
jendilaje	«...sekula ez zaidak gustatu jendearen miserien uzkian hatza sartuz bizitza aurrera ateratzen duen jendilajea .»
dontsu	«Senide urruti samarrekoak gaituk emakume dontsu hori eta ni...»
aldarte	«Alemanian ez bezala, Triesten guztiz naturalizat zeuzkaten kausa jakinik gabeko bat-bateko aldarte aldaketak...»
zirtu	«...Triesten guztiz naturalizat zeuzkaten (...) haserre handirik eragiten ez zuten elkarren arteko txantxa eta zirtuak ...»
zirtzildu	«Ut, ut, lana deitzen diok bi lerro zirtziltzeari ? Ez zagok zer barkaturik, gizona!»
zarbel	«...etxeak miatzen aritu dituk han eta hemen, egurra ematen, jendea atxilotzen. <i>Porco Dio, porco Dio!</i> Zer dira ba zakil-baba zarbelak! »
zakil-loka	«Hirurogei urtetik gora izango ditik honezkero eta zer da ba zakil-loka! ...»
gaitzidura	«Umbertok gaitzidura handiz ziharduen Triesten zebiltzan zurrumurruei buruz.»
tenore	«Ardotxo bat hartzeko tenorea diagu!, eta mantala erantzi zuen.»
trosta	«Zaldi trosten hotsak entzun genituen. Ni harritu egin nintzen.»
aloz	«Nahi dutena esango dute Saba jaunaren kontra, ni ez naiz inoren bihotz alozetan sartu zale, baina zaldun prestua da goitik behera...»
ele-mele	«Emakumeak, ordea, ele-mele parrastatsu bati ekin zion, txorrota matxuratu zaion iturri ireki baten jario halako batez...»
parrastatsu	«Emakumeak, ordea, ele-mele parrastatsu bati ekin zion, txorrota matxuratu zaion iturri ireki baten jario halako batez...»
kaskal	«...d'Annunzio bezalako poeta kaskalek eskainiko dizkiote uzkira etorritako bertso-putz guztiak Fiume izeneko gezur handiari...»
destaina	«Egingo nuke, oker handirik esateko beldurrik gabe egin ere, destaina ziola ez Italiari bakarrik, baita italierari ere.»
ostera	«Neskameari, aldiz, begiak ilundu zitzaizkion. Beharbada, osteratxo bat emateko aukera zapuztu nion nire ezetzarekin.»
alditxartu	« Alditxartuta utzi ninduen eszenak, eta kalera irten nintzen gela ezagutzeko betarik hartu gabe.»
anabasatsu	«Eskuko poltsa bat eta arropa beharrezkoenak erosi nituen Umbertok aholkatutako saltegi denetariko eta anabasatsu batean.»

Izen-deiturak:..... Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

langar	«Euria ari zuenean irteten nintzen lasaien, halako egunetan inor gutxi ibiltzen baitzen kalean. Langarra zen batean izan nuen porturaino joateko ausardia
hisiatu	«Nik, egia esan, banuen neska hisiatu baten ibilerekin arduratzea baino aurreragoko kezkarik...»
gozakaiztu	«Zaputzaldi betean egiten zituen lanok eta gehiago. Ematen zuen ez zuela gu gozakaiztu arteko onik.»
akidura	«Umbertok egiten zizkidan bisitetako batean ohi baino aurpegi ilunagoz agertu zen. Pentsatu nuen nire bizimoduak eragiten zion akiduragatik izango zela...»
takar	«Ez dakik ezer! Barkatu, barka iezadak hain baldar portatu izana, zer naiz ba takarra! »
xalotasun	«Ez ezak hire xalotasun hori sekula gal, Ernesto. Benetan, ez ezak galdu, eta, nire eskuak harturik, estutu egin zizkidan.»
bete-betea	«Paristarren bizimoduaren alaitasun natural-naturalak bete-betea liluratu ninduen.»
irritis	«...eta mundu guztiak zekien Parisek sekulako irritisa sortzen ziela naziei.»
karel	«Ni ibaiari begira nengoen besoak gurutze nituela zubi bateko karelean .»
murmu	«Ez nekien zer, baina mozkorraren murmutik atera zuen zerbait ikusi zidan.»
mihigaizto	«...emazte-plantak egitea ordaintzen nion (...), ez baitago bikote arrunt baten itxurak egitea baino modu egokiagorik mihigaiztoengandik libratzeko.»
indarge	«Azkenean, eroetxe batera eraman zuten, hezur-haragizko txorimalo indarge bihurtuta.»
bihotza kolkoan eduki	«Hori gertatu zenean hain egon nintzen bihotza kolkoan nuela , non hitz eman bainion neure buruari ez nuela harreman gehiago izango gizona zekien.»
sotil	«Ahotsa gardena zuen, eta egiaztapen sotil horrek bihotza gainezka jarri zidan...»
merke-zurrean jardun	«...interesatzen zitzaizkigun liburuen orri-pasa egoten ginen; merke-zurrean jarduten genuen saltzaileekin, ezer erosi aurretik.»
txinga	«Bizikleta ibai-ertzera eraman, eta lotzen hasi zen kareleko txingetako batean.»
ezarian-ezarian	« Ezarian-ezarian , etxeak urritzen hasi ziren eta orubeak ugaritzen.»
orube	«Ezarian-ezarian, etxeak urritzen hasi ziren eta orubeak ugaritzen.»
sarri	«Sudur-aho bitarteko tarte guztian, bibote sarria ; kopeta berez handia...»
trakako	«Trenak ohi baino trakako bortitzagoa egin zuen. Müller jauna ikara batean esnatu zen...»